

**Dinbi Danba**  
Gipuzkoako jazz  
akustikoa

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

**Elkarrizketa**  
Harkaitz Cano  
ARGIAren udako  
ipuinaz

**ARGIA**

# erdiko kaiera

**kultura eta aisia**

## Munduari bira

### Bizikletaz



Eragin pedalei. Bizikletaz ibiltzea sekulan ahazten ez delako. Gertura joateko. Eta urrutira joateko. Errepidea lohibidea denean, ezinean, gurpilen zitzua aieneka entzuten delako. Poliki joateko. Bizikletak udarako direlako. Abantadan joateko. Ekologikoa delako. Humanoa delako. Libertitzeko modua delako. Izerdia botatzeko. Hurrengo bihurgunera iristeko. Han goitik itsasoa ikusten omen delako. Louison Bobet eta Fausto Coppi ibilitako bidean ibili zaitzkeelako. Eragin pedalei jendeekin harreman zuzena izateko txirringa bezalakorik ez dagoelako. Merkea delako. Ekialdera, eguzki bila, joateko. Hegoalderantz, ilargia lagun, joateko. Non eta noiz geratu erabaki dezakezulako. Gozatzeko. Eragin pedalei.

**KOORDINAZIOA:**  
**JON ARTANO**

# 1.300 kilometro tor-tor

## Danubiotik Elbara



Badira arrastoa uzten duten bizipenak. Antzeko zerbait egiteko gogo sortzen dutenak. Bidaia bat ez da inoiz aurrekoaren berdina ordea, zorionaren atzetik ibiltzeak bizipen berriak dakartzalako kilometroak jan ahala. Budapestetik Dresdenerako bidaia arrunt, eta era berean berezi, baten egunerokoa da hau.



ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
ASIER AGIRRESAROBÉ  
ETA MUSKILDA TELLABIDE

### Labore soro amaigabeen artean herrixkaz herrixka

#### Szentendre-Gyöngyös (110 km)

Hungariera ezagutzen ditugun hizkuntza familia guztietatik kanpo dago. Hitz bakarrarekin ere ezin izan dugu sikiera harremanik aurkitu latina eta bere kumeekin, ez eslaviarrekin... Beraz, ia ziurtatuta geneuzkan goizean goiz etxeokoin izan ditugun komunikazio arazoak, baina azkenean dena argitzen da, eta berandu samar bada ere, hasi gara pedalei eragiten. Biderako janaria erosi dugu dendatxo batean, herritarrak beren erosketak egitera doazen ordu

berean, yogurt on-onak, pastel egin berriak, ogia, gazta, frutak... eta aurrera, Danubio erraldoia zeharkatzeko untziralekura. Zubiak oso leku jakinetan daude, eta gainerakoan ontziz egiten da alde batetik besterako bidea. Gyöngyös herri handia da, eta justu toki publiko guztiak ixteko ordua baino pixka bat lehenago iritsi gara. Horrela bada, konpondu dugu lo egiteko lekuaren eguneroko afera: gaur hotel erraldoi moderno eta hotz honetan bukatu dugu, baina berdin dio, lo egin eta ekarri dugun zikinkeria guztia gainetik kentzeko egokia da.

### Lehenengo mendiak

#### Gyöngyös-Monosbel (82 km)

Egunero bezala, eguraldi goibela dugu. Goizeko lana bidaia honetako lehen mendatea igotzea izan da: Matrahaza. Gogoz ibiltzekotan, Kekesteto gailurrera igoko ginen (1014 m), baina beste baterako utzi dugu. Baso izugarri ederretan barna ibili gara Matra mendi hauetan, fres-

kura lagun, trafikoarekin arazorik ez, pozik. Eger zen gaurko helmuga, baina ez zaigu batere gustatu, eta kezka apur batekin bada ere, —berandu baita—, errepidean aurrera jarraitu dugu, herri txikiren batean gelditzeko lekuren bat topatuko dugulakoan. Monosbel herrixkan aurkitu dugu gau honetarako aterpea: familia baten etxea. Etxekoandrearekin batera oheak atondu eta komuneko toailak jarri ditugu. Ezin elkar kontatu nondik nora goazen eta nola bizi garen, pena! Baina gizonak hala ere, hemengo Tokaj ardo famatuaren litro erdi eman digu opari, eta nola ez, afariarekin gustura hartu dute gorputz zigortuek.

### Agur familia!

#### Monosbel-Aggtelek (75 km)

Etxetik oso ekialdera gaudenez, eta ordu-tarte berean egonik, gure ohiturarako oso goiz argitzen du, eta oso goiz ilundu, nahiz eta uda betea izan. Jada ohitzen ari gara Hungariako errit-mora, eta jada mugatik gertu gabil-





tza... Bostekoak elkarri eman eta familia adeitsua agurtu dugu. Hor, igonera leuna hasi da Aggtelek karst ezaguneraino. Eslovakiako muga da hori. Pagadi hezeetan barna errepide meharretatik, Baradla leizearen sarreraraino heldu gara, blai. Horko aterpetxe turistikoko merkean turismo erakundearen formulario ofiziala bete dugu. Nationality dioen lekuan, Basque idatzi eta harreagarileak harrituta, *Basque?*!, guk *Yes* eta horrelaxe gelditu da, besterik gabe, paperean idatzia. Batzuetan erraza da, nahi bezain erraza. Eta dutxa goxora. Arratsaldean koba ikustera sartu gara bisitari hungariar talde batekin. Bistan da neska gidaria gauza interesgarriak kontatzen ari dela estalaktitak eta estalagmitak han hemenka bere linternarekin seinalatuz... baina dioenez ezin gauza handirik harrapatu. Gauero bezala, euria goian behean ari du, eta gauero bezala, toki umilenean ere, edredoi lodi eta goxoen artean igaroko dugu gaua, eta berehalaxe helduko da berriz ere beste egunsenti bat.

**Vysoke Tratry bistan**

**Dedinky-Stary Smokovec (97 km)**


Etxeko jauna atarian dago alabatxoa besoetan, gure goizeko prestaketei adi begira. Gero seguru asko, bart arratsean bezala, aintzirara joango da, arrantzara. Pena apurtxo batekin utzi dugu atzean Dedinky ederra. Abiatu eta berehala gosaltzen gelditu gara ostatu batean. Goseti gaude eta bertan gosaltzen ari den langile talde haren modukoa eskatu dugu guk ere: ogia, gazta, saltxitxak, tomateak, arrautzak, kafea... guztia irentsi, mapa aztertu, nondik jo eztabaidatu, eta pedalei eragitera. Mendate txiki bat gainditu beharra daukagu, izei, pago, ahabi eta magurdiz betetako baso izugarri politetatik, Nizke Tratry mendien iparraldera pasatzeko. Lur eremu zabaletan

funtzionatzen duela dirudi, autobusa txoko guztietara heldu eta autobus geltokitxo bat baitago hainbatero edozein errepide bazterretan. Zaparrada mehatxua denean, hor babestu, bota dezan itxaron eta segi. Herrietatik igarotzerakoan, ijito asko ikusten da han eta hemen, betiere auzo edo gune berezituetan bananduak. Azkenean, begibistan dugu Vysoke Tratry (Tatra Handiak) mendi multzoa, baina oinarrirainoko bidea benetan luze egingo zaigu, Stary Smokovec herrira ilunabarrean heldu arteraino. Eta arazoa: lo egiteko lekurik inon ez, nahiz eta eski-estazioa izanik ostatu pila egon. Merezita daukagunez, gaur ez diogu karterari hainbeste begiratu. Hortaz egurrezko eraikin xarmant eta dotore batean eskaini digute gela eder bat. Bizikletak eski-gelara eta gu, gauean berandu eta akituta, zuzenean horizontalera.

**Ipuinetako basoetan barna**

**Stary Smokovec-Zakopane (60 km)**

Bagoaz berriro. Sobera da esatea: gaur ere euripean. Polonia-ko Tatra handietako hiriburua dugu helmuga, Zakopane. Bidean, zuhaitz xuxen-xuxen lerdenezko baso itzel amaigabeak ditugu bidelagun, eta han-hemenka onddo biltzaileak aterratzen dira errepidera, otarra beterik. Eguerdian heldu gara Poloniako negu nahiz udako zentro turistikoko handienara. Abuztuaren 15a, Ama Birjinaren eguna, egun txarra hemen ostatu bila aritzeko... dena mukuru betea, kanpinak sardina



**EUSKADI BTT-N**

NATURA  
KULTURA  
GASTRONOMIA  
KIROLA

Zure bizikleta prestatu!  
Zatuz euskadiko BTT zentroetara

IBILBIDEAK BEHERA KARGATU

**btt euskadi**  
ZENTROAK CENTROS

www.paisvascoturismo.net



latak bezala, kaleak jendez lepo, den-  
dak gainezka, tabernak eta jatetxeak  
berdin. Txundituta utzi gaituzte egu-  
rrezko eraikuntza ederrek, baina baita,  
enfin, nonahitik begira dugun aita  
santu beldurgarri horren argazkiek ere.

### Oder ibaiaren arroan Frenstat-Bruntal (105 km)

Etapla luzea eta paisaia desberdinekoa,  
gaurkoa. Eguzkia, euririk bat ere ez,  
aspaldiko partez, errepide lehorra,  
zapatilak eta galtzerdiak lehor... horra  
hor, luxua. Gazteluak, fabrika handiak  
eta gari soro amaigabeak bidelagun.  
Astegun goiza, langileak beharrean ari  
dira "Tatra" kamioien fabrika erral-  
doian. Tarte luze samarren bat galtza-  
darritzko lurrean egin behar izan dugu,  
hau madarikazioa ipurdi gaixoentzat...  
Stramberk herrixkarakoa izan da azken  
igoera gogorra, mendixka baten gailu-  
rean dagoen gotorlekua. Gero labore  
alor zabaletan barna zeharkatu dugu  
Oder ibaiaren arro handia. Berririo  
gorantz, poliki-poliki. Urtegi handien  
ertzetik egin dugu bidea, asfaltorik  
gabea, mutiko txiki batek emandako  
argibide baliotsuek lagunduta. Bruntal  
hiri koskorrean amaitu dugu gaurkoa,  
eta hotel zatar erraldoi batean gelditu,  
besterik ezean.

### Adio Moravia, kaixo Bohemia Bruntal-Javornik (89 km)

Goizean goiz, negozio gizon eta exe-  
kutiboekin batera hartu dugu gosari  
oparora, hotel zatarreko jangelan; egun  
pare baterako ongi janda irten gara,  
alajaina. Fardelak kokatu eta eguneko  
lana aztertu bitartean tripa jaitxi, eta

berririo mendietarantz, Karlova Stu-  
danka aldera. Gutxietsi egin dugu  
aurrean genuena eta larrutik ordaindu:  
Praded mendia bizikletaz eta trastez  
gainezka igotzea eta jaitea, mendiko  
bide eta pistetatik, ez da, ez horixe, lan  
makala izan. Eta, postrerako, Jesenik  
eta Javornik herrien arteko kilometro  
mordoxka. Javornik herrixka lasai txi-  
kia da, Poloniako mugaren ondoan  
dagoena, eta ostatu bakarra dago,  
berria eta txikia. Ostatuko nagusiare-  
kin saiatu gara negoziatzen bihar goi-  
zeko gosaria goiz samar emango ote  
dugun, alemaniarrez zerbait hitz egiten  
duen zerbitzari-interpretaren bitarte-  
karitzaz, baina ez: gizaseme egosko-  
rrak, berak esandako orduan emango  
digu gosaria eta kito. Gauero bezala, lo  
seko egin dugu, ohe onetan.

### Berririo leku ezin ederragoetan Teplice-Janske Lazne (44 km)

Eguraldia, mundiala, argia, urdina,  
laino arrastorik ez: laugarren eguna  
jarraian euririk gabe, hau marka. Arra-  
tsaldean, ostera errepidekoa egin dugu,  
hurrengo mendi multzora iristeko:  
Krkonosë mendietara (Mendi Erral-  
doiak). Bada bai, egun guztiak desber-  
dinak dira eta gaur zortea izan dugu:  
ganoradun gizon eskuzabala topatu  
dugu turismo bulegoan, ostatu majoa  
gomendatu digu, bere ezagun batena  
omen, eta mendiotako mapa opari  
eman. Bainuetxe honetan biharko egu-  
nean zehar indarrak berreskuratuko  
ditugu, bizikletak egun batez ahaztu eta  
mendi eta herrixketan osteratxo bat  
egin. Horra hor osteratxo interesgar-  
rian ikusitako kontu pare bat besterik

ez: ume txikiak motxilan dituztela  
dabiltza aita-ama gazteak edozein  
mendi bide galdutan; eta garraio publi-  
ko eredugarria edukitzeko zortea dute  
hemengoek, gainera toki askotan bizi-  
kletak alokatzen dituzte. Zein atzera  
gauden zenbait gauzetan...

### Lehenengo matxura larria Frydlant-Mezni Louka (80 km)

Eta ez da hain larria izan ere... Goiz  
hanka egin dugu gure kanpin iskanbi-  
latsutik, eta kilometro bakarra egin  
ondoren, gurpiletako bat lehertu zaigu.  
Eta ez dugu neumatiko berririk. Baina  
zortea zer den, batzuek existitzen ez  
dela esaten duten adiskide hori, bizi-  
kleta denda baten parean izan dugu  
matxura. Ordubete itxaron dugu  
denda ireki arte. Gaur muga asko pasa  
beharra daukagu: lehenengo Polonia-  
ra, Bogatyniarantz, eta handik Alema-  
niara, Zittauera. Eta heldu gara arra-  
tsaldeko lehen orduetan, Bohemiako  
Suitza (alemaniarrentzat Sajoniako  
Suitza) deitzen dioten parke nazionale-  
ra, baina ez dio Suitzari inbidiarik, eta  
are, ez du Suitzarekin zerikusirik ez  
antzik... amarru turistikoren bat izan-  
go da, beraz. Baina ederra da oso, bai  
horixe. Azken gaua gure bidaldian.  
Kanpinaren ondoan jatetxea dago,  
beraz gaur ez dugu afaririk prestatu:  
Elbako amuarrainak afaldu ditugu,  
bapo, eta gero edozein bidaiaren  
bukaceraren tristurak eta ezinak hasi  
zaizkigu azaleraetzen... ■

<http://www.argia.com-astekaria>  
helbidean, argazkiak eta bidaiako  
egunerokoa osorik.





# Ekialderantz joan eta mendebaldetik etorri

## Egungentia basamortuan, Oregon (AEB)

Gauz terrala eta kaloteen uluak. Goizean lanburda zuria eta eguzki gorria. Beste egun bat *av the roof*. Horrelako paraje baketsuetan pedalei eragitea izan da bidaiako ederrenetakoa. Bakardade, erlaxazio eta gogoeta egunak. Bizikleten martxo gutxinaka ahitu gara naturak egindako aldaketetara. Paisajeak eta klimak. Eta eguzkiaren erritmoak latitude bakoitzean eragindako argi aldaketak. Uda eta negua.

Ameriketako hiri erraldoietan inudi ikusgarriagoak lortu ditugu baina ez zaizkigu toki hauek bezainbat gustatu eta gure bidaiak zer izan den hobeto erakusten du erretrato honek. Denda eta bizikleta txara artean inguruarekin bat eginda.



ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
ANDONI RODELGO  
ETA ALICE GOFFART

1997an ezagutu zuten elkar Eskozian. 2004an Andoni Rodelgo (Ermua, Gipuzkoa) eta Alice Goffart (Brusela, Belgika) ekialderantz abiatu ziren bizikletaz. Duela gutxi itzuli dira Amerikatik bueltan. Irailean amaituko dute bidaiak Ermuan.  
<http://www.mundubicyclelette.be/>



## Sumo txapelketa, Nagoya (Japonia)

Ekitaldi garrantzitsu ugari izan gara bidaiaren zehar: Kurban Bayrami (Turkia), Newroz (Kurdistan), Indra Jatra (Nepal), Divali (India)... Zirrargarrietakoa sumo izan zen, mila urte dituen bitanen arteko borroka. Erritual korapilatsuak eta japoniarren afanak liluratu egin gintuen.



Serriz egin azma zuten ibilbidea; zuriz egin dutea

## Brihadisvara-ko tenpluan, Thanjavur (Tamil Nadu, India)

Beste kulturetzat gozatu eta ikastea izan da bizikleta aukeratu izanaren arrazoiak. Indioa da mendebaldeko kulturaren aldean desberdina. Han jendeek euren izatearen eta kulturaren oinarrietaz hausnartzen dute. Indian barrena ibili ginenean ezin izan genuen bertakoien egunerokoan parte hartu. Topatu dugun gizarte txundigarrietakoa behatzaile hutsak izan ginen.



## Sendi kurdia, Aglicik (Kurdistan)

Bizikletak lekuan lekoko kulturetan sartzeko pasaportea izan dira, harremanak egin eta estutzeko pasaportea. Jendeek etxeko atak ireki dizkigute eta zuten guztia eskaini. Sekula ez genuen aurretik usteko bizikletaz egindako 42.000 km-tan bain ondo hartuko gintuztenik, batik batik Turkian eta Turkestan handian. Horkoak abegikortasun handiko herriak izaki gonbidapenak eguneroko kontua izan dira.

<http://www.argia.com-astekaria>  
helbidean, bidaiaren argazki galeria.



## Erdialdeko Asia

Aksai Txin goi-lautadan ibilbideak 5.000 metroko garaieran egiten ditu 200 km. Munduko bide luze garaiera da eta bidaiako zatirik gogorrena izan zen. Ahalegin fisikoa edo inguru geografikoagatik baino -5.450 metrora dagoen mendate bat igaro behar da-, neke psikologikoagatik. 2.600km bide negargarrian.

1962an, Mao Tse Tung-ek Txinako Herri Errepublikak hedatzeko kanpaina egin zuen errepidea armada gorriak. Ordurarte Indiako administrazioaren mende zegoen eremua izanagatik New Delhiren bizkar egin zuten dena. Gaur txinatarren beharrezko dena.





Logarska Dolina, herrialdeko leku ederrenetakoa.

Eslovenia



ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
UNAI AGIRRE

# Kontraste handiak herrialde txikian

Italia, Austria, Hungaria eta Kroaziak inguratzen dute Eslovenia, eta Adriatikoak bustitzen, lur mutur txiki batean. Ez da herrialde handia, Euskal Herria baino txikixeagoa, baina kontrastez bete. Nazio horiek guztiek, eskualdez eskualde, izaera berezia ematen diote. Biztanle dentsitate txikia du, hiri handi gutxi, eta orokorrean nekazaritzari oso lotutako lurraldea da, zelaia goa hegoaldean eta malkarragoa iparrean.

Ardo onak, primerako produktuak... jan eta edan oso ondo egiten da Eslovenian, eta gu bezalako bidaiarientzat erakargarri egiten dute. Hizkuntza ofiziala esloveniarrak da, eta inguruan duten herrialdearen arabera, bertako hizkuntza ere hitz egiten dute, eta gazte gehienek ingelese ere bai. Txanpona tolarra zen aurtengo urtarrilerako arte, trukean nahiko merkea guretzat, baina dagoeneko euro eremuan sartu dira.

## Mendate gainean mokadua zain

Bizikletan bidaiatzeko herrialde egokia da Eslovenia, bidegurutzetan okerreko norabidea hartuz gero jeneralean malkarren bat zain izaten den arren. Hori bai, portu inprobisatuaren tontorrean beti egoten da etxe galdu bat, Doverdan diosala egin eta arnas estuan datozen txirridulari galduak indar berritzeko gertu ardo eta pastelak eskainiz.

Bigarren mailako bide asko dago mahasti, arto-sail eta basoetan barrena. Trafikoari ihes egiteko modua

dago eta horrek asko edertzen du ibilia. Gainera, herrialde txikia izaki, ez dira egun asko behar itzuli osoa egiteko, ezta guk bezala bizikletak urtean behin oliontzen dituztenek ere.

## Ostatua

Badaezpada kanpin denda eta guzti joan ginen gu bidaiara; alferrikako karga. Nekazal turismo ibilbide zoragarria du Esloveniak, eta merezi du bertan ostatu hartzeak. Gehienek etxean bertan egindako produktuak dituzte: txerriak, barazkiak, eztia... eta nola ez, ardoa. Hiru erregiotan banatutako 14 ardo leku desberdin ditu Alpeen magaleko herriak, bere mahats mota eta berezitasunekin. Nekazal etxeetako ibilbideak hauetarako asko probatzeko aukera ematen du.

Kanpinean lo egin nahi duenarentzat ere aukera ona eskaintzen du, ona eta berezia: ia kanpin eta hotel guztiak ur parkeen bueltan antolatzen dituzte, ura eta denbora-pasa elkar hartuta doazen herrialdean. Gu putzutik putzura ibili ginen. Lurpeko korrante preziatuak dituzte nonbait eta bainuetxeak nonahi aurkitu litezke. Bainuetxe horien bueltan, berriz, ur parke izugarriak daude eta jende bildurik handienak ere bertan, goizean goiz hasi eta iluntzeko azken orduak arte. ■

## Triglav, hiru buruko mendia

GURE ASMOA ALPE JULIARRETARA iritsi eta handik kostaldera jaistea zen, ibilbidea Ljubljanan, hasitako lekuan, bukatzeko. Baina alpeek erakarrira bizikletak aparkatu, mendiko botak erosi eta Triglavera abiatu ginen, "hiru buruko mendira", Esloveniako armarran azaltzen den mendi kuttunera. Benetako esloveniar izateko bizitzan behin igo beharra omen dago Triglav, mendirik garaiena (2.864 metro). Bled-eko lakua da Esloveniako turistikoena, zoragarria, postal guztietakoa, argazkia atera eta alde egiteko gogoa ematen duena. Aurrerago joan eta Bohinj-eko lakua dago, handiagoa eta lasaiagoa. Mendirik garaienen magalean dago Bohinj, Ementalec behi gazta famatua egiten den lurraldearen bihotzean. Mendizaleentzat leku egokia da kanpaleku nagusia jartzeko. Bertatik Triglavera bi egunetako ibilia eta 2.300 metroko desnibela dago. Mendietan aterpe ugari da, eta pasabiderik zailenak ferrata-z hornituak. Hori bai, Triglavera igo nahi duena, goiz ibili benetako esloveniar izan nahian mundua elkartzen baita bertan.





ANDER IZAGIRRE

Txirrindularitzaren eszenatoki harrigarrienetako bat da Izoard (2.361 m.). Proventzako Alpeetako igoera honek maila bereziko mendate baten gogortasuna, paisaia estralurtar baten lilura eta kirol honetako mitoen oihartzunak batzen ditu: eskaintza erakargarria zikloturistarentzat.

Anomaliak gertatzeko leku aproposa da. 1949ko ekainaren 10ean, adibidez, grabitatearen legea eten egin omen zen bertan. Italiako Giroan gertatu zela diote, Fausto Coppi handik igaro zenean. “Balentriarik ederrena balentriarik zoroena da” esaldiaren jarraitzaile izaki, egun hartan ziklismoaren historiako erakustaldi zoro eta ederrenetako bat eskaini zuen. Inolako beharrik gabe –itzulia irabazita baitzeukan–, Coppi helmugarako 192 km falta zirela jo zuen eraso. Zazpi ordu eta erdiz Italia eta Frantziako lau mendate zeharkatu eta ordu laurden bat kendu zien aurkari etsituei. Ihesaldi absurdu baten handitasuna: sufrimendua eroso neurtzeko aukera zuen batean, bere oinaze guztia eskaini zuen Coppi maisulan bat burutzeko. Horregatik zen *campionissima*.

Izoardeko aldapa pikoenetan, txirrindulariak bazterrek jo beharrea eta bihurrituta igarotzen diren parajeetan, Coppi belodromoko espezialista eleganteenaren estiloarekin azaldu zen. Hainbat orduko sufrikarioa eta gero, zelan ondo eserita, ukalondoak angelu zuzenean doblatuta eta eskuak heldulekuan tinko, zikoina-zango famatu haiek pistoiak balira bezala gora eta behera mugitzen zituen. Egun hartan

# Izoard maltzurra



ez zen beste txirrindularien aurka aritu: 1949ko ekainaren 10a Coppi mendiak garaitu zituen eguna izan zen. *Tifossiek* Coppi flotatu egiten zuela esan zuten.

## Asfaltozko hestea

Mendate maltzurra da Izoard. Hamasei kilometroko digestio-aparatu baten itxura du. Txirrindulariak xurgatu, zuzen amaigabeetan murtzikatu eta sigi-sagatan desegin egiten ditu. Hasieran malda oso gogorak eta atsedanak tartekatzen ditu, izterrak eta gogoia disolbatzen dituzten azido deskargak dosifikatuko balitu bezala. Brunissard herritik aurrera bost kilometro ikaragarri datoz, izei baso batean barrena, eta halako batean Casse Deserte paraje soilaren atarian uzten du txirrindularia, 2.200 metroan. Han goian, begiak oker eta bihotza eztarrian iristen den ziklistari paisaia zorabiagarri bat azaltzen zaio, ez sinestekoa: hartxintzarrezko hegi kiskali batean, harrizko letagin ikaragarri handiak zutitzen dira errepidearen albotan. Dinosaurio baten masailezurraren baretik doala iruditu-ko zaio txirrindulariari.

Egilea, ezkerrean, eta lagun bat Monacotik Austriara bizikletaz egindako bidaian. Argazkia Izoard gainekoa da, Fausto Coppi eta Louison Bobet-en irudiak dituen xaflaren azpian.

Esan dugu Izoardek maltzurkeria fina duela: Casse Deserten jaitsiera labur bat oparitzen du, arnasa hartu eta gailurra ikusteko aukera, minaren amaiera gertu dagoenaren uste lasaigarria. Eta ondoren azken hiru kilometro torturatzailak datoz, %14ko maldak dituztenak, erlaxatutako ziklistari oinaze gehiago jasateko gaitasuna itzali zaionean.

Horregatik esan zuen Louison Bobetek txapeldun handienek bakarka pasa behar dutela Casse Deserten gora. Eta horregatik daude Bobet eta Coppi-ren aurpegiak Casse Deserteko har-kaitz batean iltzatutako plakan: handik arrastaka pasatu garen zikloturistok Tourraren eszenatoki mitiko honetan pixka bat fantaseatu dezagun, bakarka pasatzen direnak txapeldunak direla gogoratuz txirrindulari txarrenak ere bakarka pasatzen garela ahazteko. ■





# “Bizikliraupenerako behar duzun guztia”

## Kool-Stop wilderbeast gurdia (90 lit.) 418 €

Ipar Amerikako bizikleta bidaiariek erruz erabiltzen duten arren ohikoagoa da gurdia ordez aurreko gurpilean alportxak daramatzaten bidaiariak ikustea.

**Aide:** Trepeta pisutsuenak garraiatzeko eta biltzeko modu erosoa da.

**Kontra:** Maniobratzeko gaitasuna murrizten du eta hegazkinez bidaiatzean bizikletaz gain beste kutxa behar du. Gainera garestiak dira.

1. Altus Light Lozakua (100gr.) 63,50 €
2. Campingaz erregailua (su tokia) 27,50 € eta cv270 kartutxoa 3,95 €
3. Artiach Estera isolatzailea 7,20 €
4. Specialized Team kaskoa 139,90 €
5. Salewa Botikina 33,80 €
6. Gurdian beharrezko beste trasteak sartzeko nahikoa leku dago, adibidez oihal denda, arropak –euritako zira eta prakak, sandaliak...-, norbere garbitasunerakoak, erremintak –kate-lotzailea, radioak tenkatzekoa, allen giltzak, giltza ingelesa, partxeak, zapatak...-, antoisina, sukalde ontzi eta koilara-sardexkak..





## Specialized Expedition 06 bizikleta 375 €

Sendoa eta arina, bidaia luzeetarako egina.

1. Garapenak mendiko bizikletek eraman ohi dituztenak dira. Zorroren eta gurdiazen gainkargak ia ezinezkoa egiten dutelako errepideko bizikleten garapenekin maldan gara egitea.
2. Zela zabala eta leuna da. Koskek eragindako kolpeak indargetzeko zela azpian bi malguki daude eta zela-tutuak ere (3) esekidura sistema du.
4. Dinaria. Bizikletak pisu handia hartzen du zorroak gainean jartzean eta mesede itzela egiten du berrindua non bermatu ez dugularik.
5. Eskutokiak erraz norbere nahira egokitzeko modua ematen du lokailu horrek. Hagitz erabilgarria da ibilbide luzeetarako. Atzerantzko ispilua eta bozina ere jarri ohi dituzte zenbait bizi-bidaiarik.
6. Bide-zuloek bizikletari eta bizikleta gainean dihoanari ahalik eta gutxien erasateko jarrita du aurreko esekidura.
7. Parrila, alportzak lotzeko.
8. Vaude Traveller Comfort zakutoak (56L) 79,90 € Gurdiko poltsa eta eskutokikoa bezala urari iragazgaitza. Konpartimentu eta poltsiko aniztuna.
9. Specialized Sonoma 2 oinetakoak 73 €. Pedalei automatikoki lotzeko lokailua zolan barneratua du oinez eroso ibiltzeko.
10. Vaude Komet II bidezorroa (6L) 97€. Eskura izatea komeni direnak eramateko. Kamera, eguzkitako krema, betaurreak, mokadutxo... Gainaldean mapa bistan eramateko plastikozko estalkia du.



**Arropak soinean** doituak eta eroso izatea komeni da, urratuak eta erredurak saihesteko. Transpiragarriak eta azkar lehortzekoak izatea da egokiena.

1. Etxeendo Ovans mailota 91 €
2. Spiuk culotte motzak 81,60 €





ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
ROSA LIZASO ETA MIKEL BRINGAS

# Euskal Herriari itzulia

## Familia gurpilduna

Lehenbizikoz duela dozena bat urte jarri genituen zorroak bizikleta gainean. Bidea ez zen berria, astebururo trinketeetara pilotan aritzera –garai horretako Mikelen zaletasuna– eramaten gintuzten errepedeatatik joan baikin. Geroago zikloturismoaren ibilbide klasiko asko egin genituen eta beranduago toki exotikoagoetara joan ginen. Bidaia bakoitzaren bukaeran paisaia eta kultura berriekin disfrutatzen

gogoia handituz zihoan, baina ezin genuen burutik kendu etxe ondo-koa ez genuela ezagutzen. Eki jaio-ko zela jakin genuenean gure herrian bidaiatzeko garaia iritsi zela erabaki genuen.

Bidaia hain zen aberatsa liburu eta ikus-entzunezko batean jasotzea erabaki genuela. Ibilbidea zehazteko bi urte behar izan ditugu. Hasieran bidegorriak, bide berdeak eta zirgako bideak bilatu genituen, hau da, pedalei emateko lekurik errazena, eta

gero horiek denak elkartzen ahalegindu ginen. Helburu honekin kartografia eta bibliografia aztertu genuen eta biderik egokienak aukeratu ondoren “paperetik plazara jaitea” erabaki genuen, GPSeta grabagailua hartuz.

Gero informazio hori guztia garbira pasatu eta bidegurutzetako bakoitzaren marrazkiak egiten genituen. Marrazki hauek oso zehatzak dira, orto-argazkien gainetik egin ditugulako.

Bidaia honek begiak ireki dizkigu



### Inori ez kontatu

**LEKU 'BERRI' ASKO** ezagutu ditugu bidaian. Horietatik guztietatik, umeekin bizikletaz txango labur bat egiteko, hain ezaguna ez den bat aukeratu dugu. Baionan D-261 errepedea

hartuta, Aturri ibaitik gora egiten badugu, 10 kilometrorara Ardanabi izeneko ibaia aurkituko dugu. Leku honetan kokatzen da Euskal Herriko itzuli osoko ipar muturra eta txango proposamen honen hasiera. Ardanabiko ertzetik 12 kilometroko (joan-etorria) guztiz laua den ibilbidea duzu. Hamaiketako egiteko mahaiak eta iturri birakaria ere aurkituko dituzu. Lurra

bustia ez bada joandakoan hobe duzu ibaiaren eskuineko ertzetik ibiltzea trenbideak gurutzatu arte eta toki honetan bestaldera pasa. Lohia badago, hobe hasieratik ezker hegitik igotzea, D-257 errepedea aurkitu arte.

Euskal Herri Kontinentaleko hiriburu handienetik oso hurbil egon arren joan garen guztietan jende gutxi aurkitu dugu bertan. Beraz, badakizu, inori ez kontatu.







### Itzuliaren liburua: *Euskal Herria en bici*

Elea argitaletxea. 154 orrialde. 16,00€.

<http://www.bizibidaia.net>

eta Euskal Herriaren aniztasun paisajistikoa erakutsi digu. Ibilbidean, besteak beste, zera aurkituko ditugu: 7 lurraldeak eta 7 hiriburuak; Zuberoako baserri giroko tokiak eta Ibaizabal ezkerreko hiri girokoak; Urumeako hezetasuna eta Bardeetako idorra; Isturitzeko antzinatasuna eta Kursaal-leko modernitatea; Arabako lautada eta Pirinioetako maldetako gertutasuna; kostaldeko kresala usaina eta lehorreko zerealarena; Gernikako zuhaitza eta Guggenheim...

Gida honek luzera ezberdineko 23 ibilbide zirkular deskribatzen ditu, motzena egun bakarrekoa eta luzeena hilabetekoa; Euskal Herriari itzulia egiten duena. Etapek 39 kilometroko batz bestekoa dute, eta igoera 749 metrokoa.

Orografia kontuan harturik, fisikoki edo teknikoki gogorrenak diren bideak saihesten ahalegindu gara. Ibilbidearen %99a bizikletaz egin daiteke eta %81a trafikoak oztopatzen ez duen tokietatik doa. Gainera, etapa bakoitzaren helmuga aterpetxe edo kanpin baten ondoan kokatu dugu.

Poz handiak eman dizkigu bidaia honek. Orain gure nahia hauxe da: beste pertsona batzuek ere guk egini-ko ibilbideekin disfrutatzea, gure herriko paisaiez goza dezaten.

### Euskal Herrian arrotz

Tanden bat ikustea ez da oso arrunta izaten, are gutxiago atzean bi gurditxo badaramatza ilaran. Bideetan gure irudiak askotan jendearren harridura sortzen du eta txundidura era askotan adierazi izan digute. Kuban "no cabe uno maa?" galdetzen ziguten, Thailandian algarak entzuten genituen eta

Euskal Herrian komentariarik gabeko begirada kuxkuxeroak. Euskaldunok ezezagunekin hartu-emanetan hasteko ditugun mugetaz, Euskal Herriko itzulia ederki jabetu gara. Baina muga horiek puskatzeko prest zegoenik ere aurkitu genuen. Esaterako Mundakan. Ezagunak dira herri horretara iristen diren surflari saldoak, asko atzeritik. Gure irudi exotikoa ikusirik gu ere horietakoak ginela pentsatuko zuen hango baserriar batek. Aitzurriz lanean ari zela, ondoan pasa ginenean begirada altxatu eta barrutik oihukatu zigun: "Zelako bizikleta *my friend*".

### Haurrarekin bizikletaz bidaiatzea

Urtebete izan gabe, Ekik Euskal Herriko itzulia egin du. Bizikletaz bidaiatzea gure zaletasuna da eta ume batentzat esperientzia guztiz hezigarria izan daitekela gaude. Baina umea etxean bezain ongi egoteko, ume

baten erritmoan egin behar da bidaia.

Sasoian egonda, beste bidaietan 170 km egin ditugu egun bakar batean. Ekirekin joanda 30-40 km baino gehiago ez. Atera eta 200 metro egin aurretik ibaira harriak edo makilak botatzeko, bide bazterreko ardiak ikusteko, edo titia hartzeko, askotan gelditu behar izaten dugu.

Ekiren loak aprobetxatuz pedalei eragiten diegu. Gurditxoan siesta ederrak bota ditu eta esnatzen denean, bata porruak erostera eta bestea belarretan jostatzera, pardela aldatzera... Ume batekin bidaiatzea bizipen aberatsa bezain neketsua da. Atsedenaldirako astirik ez dago.

Eki hizketan hasia da. Erabakitze gaitasuna ere garatzen ari da. Bidaiatzen jarraitu nahi duen ala ez laster esango digu. Orain taldean hiru gara. Beraz, bozketetan berdinketarik. ■







Egilea, ezkerretik bigarrena, Bartzelonako aireportuan.

## Lau gutun Tanzaniatik

ARGAZKIAK ETA TESTUA:  
KOLDO ZUBIZARRETA

1994an hasi zen SHEE-IVEFeko ikasle talde bat udaldietan bizikletaz bidaiatzen. Urte hartan transpirenaika egin zuten. Ordutik hamaika lekutan izan dira: Peru, Sumatra, Brasil, Kuba, Guatemala, Laos, Malawi, Sulawesi... beti bizikletaz. Aurten Tanzanian dabiltza. Egileari aukera zuen aldiro e-postak bidaltzeko eskatu diogu.



2007-07-13 Bartzelona

Bidaia, bizikleta eta lagunak, hirurak estu-estu lotuta. Bi urte pasa eta berriz ere Afrikan. Batzuentzat zaila da ulertzen nola eman ditzakegun oporrak bizikleta gainean, izerditan; esfortzua, beroa, leku deserosotan lo egitea, jateko gutziarik ez... Guk ez dugu opor hoberik izan, "frogatu ez duenak, ez daki zer den hau" kantatuko nuke. Bizikletak ematen duen gertutakuna ikaragarria da. Bizikletaz usainak, koloreak, begiradak, agurrak gertu sentitzen dira. Edozein tokitan, nahi dugunean, kanpotarrak geratzen ez diren tokietan geratzeak jendearengana hurbiltzeko aukera ematen digu. Kanpotik ikusita jendeak pentsa dezake hau sekulako abentura dela, oso zaila dela horrelako bidaia egitea. Guk ez dugu hori sentitzen. Zailena agian, horrelako bidaia bat egiteko lagunak aurkitzea da. Ez gara sasoi bete betean egoten, kilometro andana aurkitzea ez da gure helburua. Atxikita hegazkina hartu aurreko argazkia bidaltzen dizuet. Aitor, Joseba eta Haizol ageri dira nirekin.

2007-07-14 Arusha

Iritsi gara Tanzaniara. 20:00etan lurreratu da hegazkina Kilimanjaro aireportuan eta bidaiako nekea gainean izan arren ezin dugu poza ezkutatu. Kezka dugu ordea: Ongi iritsiko ote dira gure bizikletak kutzatzen horietan? Bada bai. Aireportuan bertan bisa atera dugu, 50 dolar bakoitzak. Aireportutik Arusharaino beste 50 kilometro daude. Bizikletaz ezin izan ditugu egin gau iluna baikenuen. Hala nola sartu ditugu kutxak furgoneta batean eta han abiatu gara. Marka da, bidean hotza galanta pasa dugu, haizeak gogor jotzen zuelako eta leihoak beharaino jaitsita zeudelako; Afrikan hotza! Hotel txukun samar batean tokia hartu eta lotara. Gauza handirik ez dugu ikusi, hemen gaua benetan iluna baita, bertakoen azala bezain iluna. Farola eta denda-argi gutxi hemen. Irrikitan gaude bihar goizean esnatu eta Afrikari aurrez aurre begiratzeko.


2007-07-16 Makuyuni

Gozatu ederra gaur hartu duguna. Arushatik irten eta koloreak ezkereskuin, azokak eta jendea *janbo, janboka* gu agurtzen. Trafiko apurra turistez leporaino doazen *todoterrenoak*, hori bai, ziztu bizian. Pixkanaka agertu diren masaien herrixkak: *Bomak*. Txundigarria da Masaien presentzia: garaiak, azal ilun-iluna, ile motza, aurpegian orbain apaingarriak eta belarrietan zulo zabal-zabalak. Makila eskuan eta soina kolore urdin edo granate biziko tunikaz estalia. Gehienak behi edo ahuntz-zain ikusi ditugu, serio demonio. Ez da erraza beraiekin hitz egitea. Errepidean autoren batek akabatutako hiena bat, lurreko otso bat eta katajineta. Mikelek lehenengo zulatua. Bat-batean Iri gehitu gurekin, ahal bezala komunikatu gara. Bidean bertso batzuk utziaz (hasi da *bertsozikleta*) iritsi gara Makuyunira. Dutzarik ez eta baldekada ur banarekin freskatu eta garbitu gara.





## Zelatik jaistean leitzeko



**Ekialdeko mamuak**  
**Jon Arretxe** ELKAR



**Griot**  
**Jon Arretxe** ELKAR



**Tubabu**  
**Jon Arretxe** ELKAR



**Tuparen seme-alabak**  
**Jon Arretxe** ELKAR



**Alpeen itzalpean**  
**Juan Martin**  
**Elexpuru** ELKAR



**Kuba triste dago**  
**Juan Martin**  
**Elexpuru** ELKAR



**Ilargia lagun beti Hegoalderuntz**  
**Fernando Presa**  
TXALAPARTA



**Txirringaren aienean**  
**Amaia Elosegi eta Esther Mugertza**  
TXALAPARTA

Bidaiaiko ekipaia egiteko urrezko araua honakoa da: "Bildu ezazu ezinbestekoa. Gero baztertu erdia". Izan ere hamaika gauza behar ditu pertsonak etxetik joateko. Ibiltari gehienentzat nahitaezkoa da literatura. Hara hemen bizikletaz egingdako bidaiez euskaraz irakurtzeko aukera. **I**

esprinta sarean

erdiko katera

Makina bat leku bada sarean bizikletaz ibiltzeko. Erabilgarrietakoa da [warmshowers.org](http://warmshowers.org) (ingelesez eta frantsesez). Bizikletaz dabiltzanei dutxa beroa eta gauerako ohea eskaintzen dieten pertsonak biltzen dira hor. Ibilbideak eta jendearen kontakizunak bilduta [esciclismo.com](http://esciclismo.com)-en (gaztelaniaz), ona da bidaia prestatzeko. [bicifamiliar.org](http://bicifamiliar.org) familian bidaiatzen dutenek, familian bidaiatzen dutenentzat egina da (gaztelaniaz eta katalanez).

Ziklobidaia irakurketa egunero koak Interneten jartzeari gustua hartu zioten lehenetakoak. Urrutirantzko bidaia eta barne bidaia, epikoak bakarrean batzuk baina xumeak gehienak. Honatx batzuk. Ederrenetakoa da Álvaro pailazo asturiarrarena ([bicycleclown.com](http://bicycleclown.com), gaztelaniaz) 80 hilabetez ibili nahi du batetik bestera irribarrea eraginez. Beat Heim-ek ([betzgi.ch](http://betzgi.ch), ingelesez) munduko mendi garaienak igotzen ditu magaletik magalera bizikletaz joanaz. Alaskatik Tierra del Fuego-raino 22.115 km egin zituen bizikletaz Endika Fernandez ermuarrak. Bere bizipenak [txirringa.blogspot.com](http://txirringa.blogspot.com)-en. Abentura senak gainezka egiten dio Corax suediarri [3.utsidan.se/corax-e](http://3.utsidan.se/corax-e) (ingelesez). Gizarte kontsumistaz ernegatuta mundu berri baten bila abiatutako kataluniar baten orria da [gambada.com](http://gambada.com) (gaztelaniaz eta ingelesez). Iker Blas hernaniarra abuztua abiatutako da Errumaniatik etxerantz: [transylvania2007.blogspot.com](http://transylvania2007.blogspot.com).

2007-07-17 Karuta

Gaur lehenengo aldapak. Nabari da ez gaudela sasoi onenean, Joseba salbu, noski, hori beti ondo. Aurten kanpin-dendak daramatzagu gida-liburuen eta Tanzanian ibilitako bidaiarien aholkuak jarraituz, eta nahi baino gehiago nabaritzen dugu pisua. Bidean Masai gazteak turistek argazkiak egin ditzaten dantzan eta kantuan ikusi ditugu, diru truke noski. Haurrak eskean ere dezente. Ez al dugu guk bertan hori bultzatzen honaino etorriaz? Urrutitik bada ere lehenengo animalia handiak ikusi ditugu: Elefantea eta ñua. Hegazti ederrak ere bai: arrano zuria eta putre erraldoia, marabua eta beste hainbat txori koloretsu. Karatun bertakoen saltoki koloretsuak. Askotan VISA onartzen dute. Hemen ezagutu dugu Nerea. Oriokoa da eta Mugarik Gabeko Ingeniariak taldearen proiektu batean ari da. Hiru urte daramatza Tanzanian. Harrera bikaina egin digu eta guk izugarri eskertu diogu, dutxa beroa bereziki! Bihar Ngorongoriko kratererra goaz, ikaragarri ederra omen da eta animalia ugari ikusi omen daitezke. Bihar *todoterrenoko* turista bilakutuko gara. Azken finean, desberdinak al gara? Etxetik aurrera turisten ibilbideetatik aldenduko gara.

